



PASAIAKO ONDASUN HIGIEZIN HIRITARREN **LURZORUAREN ETA ERAIKINEN BALIO PONENTZIAREN** **ALDAKETA**

SARRERA

2001eko abuztuaren 28an udalerriko Balio Ponentzia onartu zuen Diputatu Kontseiluak. Ponentzian oinarrituta, ondasun higiezin hiritarren balio katastralak lortu ziren. Balio katastral berriak 2002ko urtarrilaren 1ean jarri ziren indarrean.

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak 12. artikuluan jasotzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak aldatuko ditu balio katastralak, ofizioz edo udalak eskatuta, betiere hiri antolaketak edo beste edozein zirkunstantziak agerian uzten badu diferentzia nabarmenak daudela, alde batetik, balio katastral horien eta, bestetik, udalerrian nahiz bertako zonaren batean edo batzuetan kokatzen diren ondasun higiezin merkatuko balioen artean.

Balio ponentzia onartu denez geroztik, aldaketak izan dira udalerriko hiri antolaketan; gainera, lurzoruaren izaerari eta, beraz, aldaketa horiekin lotutako ondasunen merkatuko balioari eragin diete aldaketa horiek.

Era berean, balio katalalen eta merkatuko balioen arteko aldea antzeman da udalerriko hainbat zonatan. Hori horrela, udalerriko zona edota azpizona batzuetan balio eragingarriak berrikusi behar dira.

Udalerriaren hirigintza garapenaren ondorioz, agian kale berriak sortu dira edo lehengo kaleetan atari zenbaki gehiago sortu dira. Hori dela eta, beharrezkoa da haiei dagokien merkataritzako azpizona esleitzea.

Horregatik guztiarengatik, udalerri honetako ondasun higiezin hiritarren lurzoruaren eta eraikinen balio ponentzia aldatuko da.

XEDEA

Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezin gaineko Zergari buruzkoak, 12. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerriko balio ponentzia aldatu da zirkunstantzia hauek direla medio:



1.- Udalerriko hiri antolaketan aldaketa hau egin da:

- **Pasaiako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa, “Trinxerpe Goia” A.I.U. 2.12 hirigintzako esku hartze areari, eta “Azkuene Goia” A.I.U. 2.09.02 hirigintzako esku hartze areari, “Ana Mary Etxea” A.U. 2.08.03 hirigintza areari, “Izarra” A.U. 2.04.03 hirigintza areari eta “Salinas” A.U. 2.03.01 hirigintza areari dagokiena** (Diputatu Kontseiluak behin betiko onartua 2005eko abuztuaren 2an, eta GAOn argitaratua 2006ko otsailaren 8an).

EGIN BEHARREKO ALDAKETAK

Aipatu zirkunstantzien ondorioz, honela aldatuko da Balio Ponentzia:

1.- Lurzoru hiritarraren mugaketa eta 304, 312, 313, 314 eta 315 zona katastralen mugaketa aldatu dira; etxebizitzetarako 316, 601 eta 602 zona katastralak sortu dira.

2.- Balio hauek eman zaizkie zona katastral berriei:

<u>Zona</u>	<u>Hirig. sailkapena</u>	<u>Eraik. kostua (EK)</u>	<u>Eragin erresid. balioa (BEE)</u>	
316	HIRITARRA	510,86 €	508,92 €	11.419,23 €
601	HIRITARGAIA	510,86 €	508,92 €	11.419,23 €
602	HIRITARGAIA	510,86 €	508,92 €	11.419,23 €

3.- V azpizona katastrala esleitu zaie etxebizitzarako 316, 601 eta 602 zona katastraleko kalei edota kale tarteei.

I. ERANSKINA

Lurzoru hiritarraren mugaketa planoa

II. ERANSKINA

Zona katastralen planoa